



KULTUR, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO ENTITATEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA

Lakuntzako Udalak, bere aurrekontuen mugen barnean, dirulaguntzak emanen dizkie kultur, kirol eta gizarte arloko entitateei, oinarri hauei jarraikiz:

OINARRIAK

1. Xedea:

Kultur , kirol eta gizarte arloko entitateei dirulaguntzak emateko araubidea ezartzea da deialdi honen xedea, helburua delarik herritarrek beren herrian parte hartzera bultzatu, bizi-kalitatea hobetu, eta heziketa, artea, kirola, kultur eta gizarte arloko jarduerak sustatu eta laguntzea.

2. Diruz lagunduko diren jarduerak.

- a) Heziketa jarduerak, haien helburua biztanleriaren edozein sektoreren arautu gabeko hezkuntza bada.
- b) Arte eta kultur arloko jarduerak: antzerkia, musika, dantza, zinema, bideoa, literatura, arte plastikoak, folklorea eta antzekoak.
- d) Gizarte arloko jarduerak, haien helburua herritarren sustapena bada.
- e) Herriko arte eta kultur ondarearen babespenaren aldeko jarduerak.
- f) Kirol jarduera eta ikuskizunak.

3. Jarduerak, dirulaguntza jaso ahal izateko bete beharreko baldintzak.

- a) Herritar guztiengana zabalik egotea, hau da, bazterkeriarik ez eragitea sexua, arraza, hizkuntza, ideologia, baldintza sozioekonomikoak, ea. direla eta.
- b) Hezkuntzaren edota gizarte, kirol eta kulturaren aldetik interesgarriak izatea.
- d) Herritarren harremanak eta elkarbizitza, hautapen librea eta garapen pertsonala sustatzea.
- e) Udalaren beste laguntza-lerro batean sarturik ez egotea.

4. Aurkezpen epea eta tokia.

Eskabideak Udaleko erregistroan aurkeztuko dira. Epea: 2019ko maiatzaren 31rarte. Kontusaila geratuko da urtean barrena aurkeztu diren eskarietarako.

5. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- a) Eredu ofizialaren arabeko eskabidea.
- b) Urteko programa eta aurrekontua (erasten den ereduaren arabera).



6. Balorazioa.

6.1. Udaleko Batzorde espezifikoek aztertuko ditu aurkezturiko eskariak eta dirulaguntzak emateko proposamena eramanen du Lakuntzako Udalaren osoko bilkurara. Eskariak aurkezteko epea bukatzen denetik, batzorde horrek hogeita hamar egun izanen ditu bere proposamena egiteko.

6.2. Dirulaguntzak emateko irizpide hauek kontuan hartuko dira:

- a) Jardueraren garapenean euskara izatea erabiltzen den hizkuntza.
- b) Jardueran parte hartzen dutenen lakuntzar kopurua.
- d) Jarduerak hezkuntzaren eta/edo gizarte, kirol eta kulturaren aldetik duen interesa eta oihartzuna.
- e) Elkartearen begiraleek eta arduradunek gizarte, kirol eta kultur arloko sustapenean hartzen duten prestakuntza.
- f) Hemengo kultura bultzatzea.

7. Ebazpena eta ordainketa.

7.1. Eskarien ebazpena Lakuntzako Udalak egingen du osoko bilkuran, batzorde espezifikoaren proposamena azterturik.

7.2. Eskatzaileei deialdiaren ebazpenaren berri emanen zaie, baita lagunduko diren jardueren berri ere.

7.3. Dirulaguntzek elkarre eskatzailearen jarduera edo programen kostuak sorrazitako defizitaren atal bat arintzeko helburua dutela ulertuko da.

7.4. Lakuntzako Udalak eskarien ebazpena egin ondoren egingen du ordainketa, taldeek dituzten gastuei aurre egin ahal izateko. Hala eta guztiz ere, taldeek egindako jarduerak justifikatu beharko dituzte, beranduenez urte bakoitzeko abenduaren 20a baino lehen.

7.5. Dirulaguntzaren gastua frogatzeko, egindako eta diruz lagundutako jardueren gastuen jatorrizko fakturen fotokopiak aurkeztuko dira, eta haietan agertuko den zenbatekoa emandako diru-laguntzaren diru kopuru bera izanen da. Oro har, fakturretan hau zehaztuko da: ordaintzen duen entitatea, gastuaren eguna, kontzeptua, zenbatekoa eta enpresaren izena (NAN edo IFZ), zigilua eta faktura-emailearen sinadura.

7.6. Lakuntzako Udalak jatorrizko fakturak aurkeztea eskatu ahal izanen du frogapenak egiteko.

7.7. Dirulaguntzaren zenbatekoa Lakuntzako Udalaren aurrekontuetan xede horrekin berarekin dagoen diru kopuruak baldintzapetuko du beti ere.

8. Betebeharrak.

- a) Diruz lagundutako jarduera eta programen publizitatea euskaraz edo elebitan egin beharko da.
- b) Diruz lagundutako jarduera eta programen publizitatean Lakuntzako Udalaren laguntza duela agertu behar da.
- d) Diruz lagundutako programetan edozein gorabehera gertatuz gero, haren berri ematea gertatzen den unean.

9. Ez betetzea.

Deialdi honetako oinarrietan ezarritakoa ez betetzeak, datuak faltsutzeak, edo, diru-laguntza zein xedetarako eman zen, horien funtsezko aldaketak, dirulaguntzaren galera ekarriko du, eta jaso den zenbatekoa itzuli beharra ere bai. Halaber, xede berarekin beste eskaririk egiten bada, ez da onartuko.